NERE KUTUNA

(KOROA KANTARI-TALDEARENTZAT)

Aingeru eder zoragarriya,
izarra beziñ dizdizariya,
Barrenen daukat gar oso biziya,
zuregatik choratu naiz iya.

Gabaz eta egunaz
zurekiñ pentsatzen,
nere biyotz gaŝua
daukat nik penatzen.
Ez bazerade laister
zu nitzaz kupitzen,
ikusiko nazu ni
oso miñez jartzen,
koloria galdu ta
mamiyak medartzen
ezur-utsaren antza
beriela artzen.

Maite nazula, esan
dirazu ¡ederra!
zuk paketu dirazu
biyotzeko gerra;
bi biyotz baturikan
prest izango gera
¡zu nere emaztia!
¡ni zure senarra!

JOSÉ ARTOLA.